

**EUSKAL PRESOK.** Espetxeetako azken gertaerak salatu dituzte



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

**Hileko azken karteladak jendetsuak izan dira**

Etixeratek antolatuta karteladak egin zituzten atzo iluntzean, Euskal Herrian zehar. Hileko azken ostiraletan elkarretaratze bereziak antolatzen dituzte. Urtea hasi denetik espetxeetan izaniko zenbait gertaera —jipoiak, erasoak, istripuak— salatu zituzten kontzentrazioetan, atzo. Gasteizkoa izan zen

jendetsuena, 950 lagun elkartu ziren. Arabari dagokionez, Laudion 80 bildu ziren. Bizkaian, Bilbon 400 pertsona elkartu ziren, eta Zornotzan 100. Azken horretan, Joxean Etxebarri preso ohiak hartu zuen parte. Iruñean 300 lagun elkartu ziren, eta Donibane Lohizunen (Lapurdi) 60 lagun.

**ELKARRI.** Gatazkaren konponbideak hizpide Gasteizen



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

**Ibarretxe nazioarteko adituekin bildu da**

Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakaria gatazken konponbideen eta giza eskubideen gaineko nazioarteko adituekin bildu zen atzo, Gasteizen. Konponbidea «elkarrizketa» dela esan zuten guztiak; «eskubideen defentsa» eta «terrorismoaren aurkako borroka» ere nabarmendu zituzten. Ibarretxeren ustez, «ez dira indarkeria eta aldarrikapen politikoak nahastu behar». Harry Barnes (ezk.), Timothy Phillips (erdian) eta Alec Raidekin (esk.) egon zen atzo EAEko lehendakaria; Elkarriren Bake Konferentziara etorriak dira.

**DIRU BEREIZIEN EPAIKETA.** Bost kondenatuen abokatuek helegiteak aurkeztuko dituzte

Agentziak | MADRID

Ustelkeriaren Aurkako Fiskaltzak ez du Madrilgo Auzitegi Probintzialak diru bereizien auzian emandako epaia errekurrituko, ez duelako «oinarri sendorik» aurkitzen Jose Barrioreno eta Jose Luis Corcuera Barne ministro ohi sozialistak zigorgabetu zituen ebazpenari aurre egiteko. Joan den astearteko epaiaren arabera, ezin da egiaztatu bi ministro ohiek diru sarrera bidegabeak «ahalbidetu» zituztenik.

Ebazpena «ondo egituratuta» dagoela esan zuten Fiskaltzako iturriek; «lege urraketarik» ez dagoenez, ez dutela helegiterik tartekatuko. Gainerako akusatuak jarraituko dituzte; berriz, fiskalaren eskaeretatik gertu daudela azaldu zuten. Fiskaltzak astelehena bitarteko epaia errekurritzeko.

**Fiskalak ez ditu absoluzioak errekurrituko**

**Ustelkeriaren Aurkako Fiskaltzak ez du epaiaren kontrako «oinarri sendorik» aurkitu**

Fiskaltzak, bestalde, ez du behin-behineko kartzelaldirik eskatuko kondenatutako bost goi karguentzat, ihes egingo duten arriskurik ikusten ez duelako. Beraz, epaia irmoa izan artean kalean jarraituko dute; urtebete eta bi urte bitarteko epean aztertuko ditu Auzitegi Gorenak helegiteak. Gero, epaia berresten badu, kondenatuak kartzelan sartuko dituzte.

Madrilgo Epaitegi Probintzialak zazpi urteko kartzela zigorra eman zion Rafael Verari, seikoa Jose Maria Rodriguez Coloradori eta laukoa Julian Sancristobali. Francisco Alvarez eta Iñaki Lopezi, berriz, 11 eta 10 hilabeteko kartzela zigorrak. 1987 eta 1993 urteen bitartean Barne Ministerioko diru berei-

ziak bidegabeki erabiltzeagatik zigortu zituzten bostak. Diru bereziak «terrorismoaren eta narkotrafikoaren aurkako borrokarako» ziren, eta ez zegoen diru horren kanpoko kontrolik.

**Rafael Veraren helegitea**

Rafael Veraren defentsak helegitea aurkeztuko du gaur. Veraren eskubideak eta errugabetsun printzipioa urratu direla argudiatuko du, haren «aldeko agiriak» ez direla kontuan hartu, eta epaian «kontraesanak» daudela. Halaber, beste lau kondenatuen abokatuek helegiteak jarriko dituzte. Akusazioei dagokienez, berriz, herri akusazioko Jose Maria Ruiz-Mateos enpresariak Corcueraren absoluzioa bakarrik errekurrituko du. Emilio Rodriguez Menendez abokatuak ordezkatzeko duen herri akusazioak, ordea, ez du Auzitegi Gorenera joko.

**BIKTIMAK**

**Martxoaren 3ko senide eta zaurituei biktimei dagokien laguntza ukatu egin diete**

Erredakzioa | GASTEIZ

Martxoaren 3ko zauritu eta senideei biktimei laguntza ukatu die Espainiako Barne Ministerioak. Erabakia hilaren erdialdean jakinarazi zuten Ministerioak senideei, eta emandako argudioen arabera, 1976ko martxoaren 3an Gasteizen jazotako gertaera, zeinetan poliziak bost behargin hil zituen, ez da ekintza terrorista. Era berean, Barne Ministerioaren arabera, Poliziak ez zuten bakea eta hiritarren segurtasuna «larriki aztoratu» nahi izan.

**LABURREAN**

**Rey Domercq ustezko etakidea Parisera eramango dute gaur, epailearen aurrean deklaratzeko**

Alberto Rey Domercq Beto Baionatik Parisera eramango dute gaur, Laurence Le Vert Terrorismoaren Aurkako epailearen aurrera. Asteazkenean atxilotu zuten, Landetan. 2000ko urtarrilean Pedro Antonio Blanco teniente koronelaren hilketan parte hartzea egotzen diote, eta Donostiako Udalarari eraso egiteko asmotan zebilela uste dute.

**Frantziari Carasatorre ustezko etakidea estraditatzeko eskatzea erabaki du Espainiak**

Espainiako Ministro Kontseiluak Frantziari Jose Ramon Carasatorre Aldaz ustezko etakidearen estradizioa eskatzea erabaki zuen atzo. 1994an Alfonso Morcillo Donostiako udaltzaina eta 1995ean Gregorio Ordoñez PPko zinegotzia hiltzea leporatzen diote, besteak beste. 2001eko abenduan atxilotu zuten, Auchen.

**'Elkarrekin mehatxuen aurka' lelopean manifestazioa egingo du BAKek, otsailaren 2an, Bilbon**

Bakearen Aldeko Koordinakundeak manifestazioa egingo du Bilbon, otsailaren 2an, *Elkarrekin mehatxuen aurka*. *Elkarrekin askatasunaren alde* lelopean; Mahatma Gandhiren hilketaren urteurrena ere gogoratuko dute. 17:30ean izango da, Jesusen Bihotzaren plazan. ETAk jende askoren egoera «jasangaitza» bihurtu duela salatu du BAKek.

**Bi telebista errepikagailuri su eman diete, Bilbo ondoko Arnotegi mendian**

Bi telebista errepikagailuri su eman zieten atzo goizaldean, Bilbo ondoko Arnotegi mendian, Herrizaingo Sailak jakinarazi zuenez. Goizeko 02:05ean errepikagailuen zaindariak Ertzaintzara deitu zuten, erasoaren berri emateko. Etxolako atea irekitzea lortu, eta gasolina bota zuten barrura. Bi errepikagailuak kaltetu zituen suak.